

Hizkuntz-egoera zaharrago bat ezagutzea posible da daukagun materiala beste modu batean aztertzen bada. Aztertu beharreko beraz, CVC erro monosilabikoa da.

Mitxelenak proposatutako barne-berreraiketa originala eta emankorra izan zen, eta asko aurreratu zen ikerketan. Metodo egokiena da, euskarak ez baitu aitzindari edo familiako ezagunik.

Euskara 1) Eranslea 2) SOV 3) Ergatiboa eta 4) Aditz sistema konplexukoa da.

Gero eta argiago ikusten du deribak zerikusi handiagoa duela hizkuntzen eraldaketan. Artikuluan deribaren nondik norakoak azalduko dira.

Hainbat ikerketa egin dira euskararen jatorriaren inguruan, baina akatsak zituzten. Metodo tradizionalak ez zuten funtzionatzen, eta glotokronologiak ere akats ugari zituen. Greenberg eta beste hainbatek hizkuntzak konparatu zituzten, baina oso azalean geratu ziren.

Schumacher eta Seto-k Bantu hizkuntzekin konparatu zuten Euskara, baina alperrik.

Vennemann-ek tribu indoeuropearren "oleada" k aztertu zituen, eta europa birpopulatzean, hizkuntza aurre-indoeuroparrak zeudela esan, bat euskara. Lakarrak dio ez zituela hizkuntzalaritza historikoaren arauak jarraitu eta bere lanak ez duela (gehiegi) balio.

Ez da ahaiderik topatu, beraz barne-berreraiketa da bide bakarra. Martineten proposamenean oinarrituz, Mitxelenak sistema fonologikoa berreraiki zuen, *fortis/lenis* oposaketan oinarrituz (Betiko taula, 5 bokal eta *b/t/d/k/g/h/n/N/V/L/r/R/s/ts/z/tz*). Sistema honek Iberikoarekin antzekotasuna omen zituen: *r*-rik ez hitz hasieran, *m* eta *p*-rik ez).

Silaba egiturari dagokionez, (C) V (W)(R)(S)(T). Baina (C)-k ezin zuen *r/R/ts/tz* edo *d* izan. Noam Artiagotia esan zuen amaierako T-a ezinezkoa zela (**duda*>*dut*).

Trask-ek euskal morfologia eta sintaxia berreraiki nahi zituen. 3.pertsonako aurrizkiengatik (aspektu markak zirela jakin zuen, ez pertsona markak), aditzeko pertsona-marken ordenagatik, ergatiboagatik, datiboen presentziagatik eta *n*-ren iraganeko agertzeagatik SVO hizkuntza zela proposatu zuen.

Mitxelenak ez zuen silaba egitura kanoniko bat proposatu, bat baino gehiago proposatu zituen, mota desberdinekoak. Lakarrak erreduplikazioa gertatu zela proposatzen du, eta beraz, erro kanonikoa CVC (*saindua! Gurtu uedi silaua egitura uedenikhátua, Lacarraren gráciak emana*) da. Azkueren intuizioei jarraituz eta Uhlenbeck-en proposamenean (silaba egitura ugari proposatu zituen, monosilabikoak asko ziren) oinarrituz erroak monosilabikoa behar zuelako teoria indartu. Bisilabikoak MAILEGUAK edo ERATORRIAK ziren. *Orri askotako datuak eta datuak eta gero (silaba egitura danak ta portzentajek)* egitura ugariena CVC dela esaten dute. Erreduplikazioetan etab. ikusten denez, AitzinEuskarak aurrizki gehiago zituen atzizkiak baino, eta horrek garamatza pentsatzera euskara lehen ez zela SOV.

Gogoratu, euskara 1) Eranslea 2) SOV 3) Ergatiboa eta 4) Aditz sistema konplexukoa da.

Trask-ek dioenez SVO>SOV aldaketa tipologikoa gertatu da, aurrizki/atzizkiei begira.

Gomezek, aditzetako partikulak (da-) ikusiz, proposatzen duena VSO>SOV aldaketa bat da.

VSO hizkuntzetan preposizioak daude, eta euskara VSO bazen, non daude preposizioak?

Euskara beste tipo batekoa zela pentsatzeko arrazoiak: 1) adjektiboaren eskubiko posizioa eta exkaxia 2) erlatiboen posizioa (eskubitara) 3) silaba monosilabikoen antzinasuna 4) aurrizkiak 5) aditz jokatuaren berrikuntza 6) *-ga* lokatiboaren eta ergatiboaren harremana 7) adjektiboek jatorria aditz estatikoetan izatea 8) azentu egitura desberdin bat. Badira beste 6 arrazoi, baina ez dituzte entzuten...

Diotenez, arrazoi guztiak ez dira maila berekoak. Orain, sistema fonologiko berri bat proposatu behar da CVC erro kanonikoari egokitzen zaiona.

Greenberg-ek hizkuntzen sailkapen bat egin zuen, baina ikusten da hizkuntzak ez direla %100ean tipo batekoak.

Donegan eta Stampe-k fonologiari eman zioten garrantzia hizkuntzen deriban, azentuari hain zuzen, eta badirudi asmatu zutela. Munda eta Mon-Khmer hizkuntzak alderatu zituzten (familia berekoak) eta tipologikoki guztiz desberdinak zirela ikusi zuten.

Trask-en ustez, deriba tipologikoa inguruko hizkuntzen eraginarekin lotuta dago.

Euskarak hainbat ezaugarri berri dauzka SOV hizkuntzenak (-V# galera, *VnV>V(sudurkariak)...), gainera, hitz hasierako V-en ugaritzea ere aldaketa tipologikoarekin (eranskaritasunerantz) lotzen da.

Martinetek azentua hitz hasieran kokatzen zuen, azentu demarkatiboa. Mitxelenak hasieran lehen silaban zuela esan zuen, baina gerora bigarren silabara mugitu zela, hasperenaren fenomenoaz azalduz. Igartuak esan zuen, lehen silaban hasperena (haskari hasperendunak) zuten hitzak maileguak zirela, beraz bigarren silaban zegoela demostatu zuen.

Garai btean armonia bokalikoa omen zuen euskarak, erreduplikazioarekin lotuta dagoena, eta hortik sortu omen ziren lehen erro bisilabikoak. Baliteke garai batean 5 V baino gehiago izatea, baina hau asko esatea da.

Hizkuntza batzuetan armonia bokalikoa aditzetan ere badago, baina euskaraz ez, beraz, euskal aditz jokatuak berriagoak direla pentsatu daiteke. Horretaz gain, *ahal* edo *ahantz* bezalako aditzak erreduplikazioetatik sortu direla pentsatzen da.

Ondorioak

Deriba tipologikoaren aldeko argudioak: 1) Egitura fonologikoaren aldaketak 2) Azentuaren posizioa 3) Armonia bokalikoa eta inbentario bokalikoa 4) Aditz jokatuaren sorrera berantiarra.